

HEGO EUSKAL HERRIKO MAIATZAREN 30eko GREBA OROKORRAREN JARRAIPEN HANDIA

Grebaren deitzaileek (ELA, LAB, STEE-EILAS, ESK, EHNE, HIRU, CGT eta CNT, hainbat gizarte-kolektiborekin batera) gaurko greba egunaren jarraipen zabalari buruzko iritzia ona dugu. Lanuztea Hego Euskal Herriko arlo eta enpresetan orokorra izan da.

ARLO INDUSTRIALA (Koadro laburtua)

<u>Lurraldea</u>	<u>Guztira> Enpresak</u>	<u>70% Lanuzt.</u>	<u>>30% Lanuzt.</u>	<u><30% Lanuzt.</u>	<u>Daturik gabe</u>
ARABA	104	33 31,73%	31 29,81%	29 27,88%	11 10,58%
BIZKAIA	214	73 34,11%	45 21,03%	63 29,44%	33 15,42%
GIPUZKOA	198	105 53,03%	22 11,11%	44 22,22%	27 13,64%
EAE-CAPV	516	211 40,89%	98 18,99%	136 26,36%	71 13,76%

Aztertutako enpresa guztien artetik %**59,88**an erabateko lanuztea edo %30etik gorakoa izan da.

Gure datuen arabera, erabateko lanuztea –%70etik gorakoa– 211 enpresatan izan da, hots, %40,89a.

Nafarroan lanuztea itxurazkoa izan da Iruñerrian, non enpresa garrantzitsu askotan greba egin baitute. Sakanan, Leitzan eta Baztango bailaran jarraipena handia izan da.

Bestalde, greba egiten ari den enpresa handien kopuruaz gainera, aipatzekoa da enpresa txiki eta ertain (este) askotan ere deialdiarekin bat egin dutela beharginek.

Beraz, **arlo industrialeko** datu erkatuek adierazten dute grebak jarraipen orokorra izan duela, eskualdez eskualde desberdina bada ere.

Greba egiten ari diren enpresa batzuk aipatze aldera, honako hauek ditugu:

Estampaciones Metálicas Bizkaia, CIE Udalbide, Camelot, Ormazabal, Mesa, Técnicas Hidráulicas, EGT, MFS Trapaga Stering, Gea Ibérica, tecnichapa, Cemosa, Mead, Cementos Leona, Arkema, Cafés Baqué, Artiach, Ekonor, Unilever, Beretta Benelli Iberica, Wind Energy Casting Fundiciones, Alestis, CIE Gamenko, Arcelor Salatierra, Inausa, Jez Sistemas Ferroviarios, Talleres Gometegi, Kider, Bacalao Gaytan, Unilever Foods, CAF, Indar, Rodisa, Niessen, Eztanda, TS Fundiciones, Angel Iglesias, Industrias Auxiliares, Elay Industrial, Fundiciones Wind Energy, Casting, Muskgo, Cementos Rezola, Sarriopapel, Unipapel, Berkha, Autogrill, Zalain, Funvera, Savera, Magotteaux, Viscofan, aurecia, Labolan, Ascensores Schindler, Arcelor Mittal Legasa, Transportes Bidasoa, Eroski Abadiño, Sabeco Durango, Plásticos Alai, Guardian Llodio, Kimberly, Mondi

Gainerako arloetan, frogatutako datuek honakoa adierazten dute:

Bidaia-eraren garraio sektorean, Eusko Trenen gutxieneko zerbitzuak besterik ez dira egin. Metroan eragin nabaria izan du lanuzteak. Gasteizen aipagarria da TUVISA %60ko jarraipena lortu duela grebak. Salgaien garraioan greba nabaria izan da.

Eraikuntza, greba ia erabatekoa izan da Gipuzkoako lanetan, eta oso agerikoa Bizkaia eta Araban. Gainera, aipatu beharra dago zementu lantegi guztiak gelditu egin direla: Leona Industrial, Añorgako eta Arrigorriagako Financiera y Minera).

Sektore publikoaren eremuan, irakaskuntzari dagokionez grebaren jarraipena orokortua izan da, nahiz eta ezberdina izan eskualdeen arabera. Irakaskuntza publikoan lanuzteak ikastetxeen %70an baina gehiagotan izan du eragina eta ia haurreskola guztietan. Itunpeko ikastetxeen artean, ikastola gehienek ateak itxi dituzte, eta gainerako zentroetan jarraipena garrantzitsua izan da, lurralde eta eskualdeka desberdina izanik. Unibertsitatean ere grebak babes zabala izan du.

Grebaren jarraipena **udal eta foru-aldundietan** oso garrantzitsua izan da EAEko hiru lurraldeetan, batik bat Gipuzkoan, non ia udal guztiek bat egin baitute grebarekin. Bizkaia dagokionez, aipagarria da eskualde batzuetako lanuzte orokorra (Busturialdea, Durangaldea...), baita Bilboko Udalean non jarraipena zabala izan den.

Administrazio Autonomikoan, jarraipena handia izan da, eta **justizia arloan** erantzun zabala lortu du grebak; kasu batzutan gutxieneko zerbitzuak besterik ez dira izan.

Osakidetzako arloetan, ospitaletan zein lehen arretako sarean, erantzuna ez da hain handia izan, gutxieneko zerbitzuak gehiegizkoak zirelako.

Arlo sozio-sanitarioan grebak jarraipen handia lortu du, eta kasu gehienetan gutxieneko zerbitzuak soilik zeuden irekita. Hain zuzen, Justizia Goi-Auzitegiak Lan sailak gutxieneko zerbitzuei buruz emandako agindutik geriatrikoei zegokien artikulua indargabetu du, ezarritako gutxieneko zerbitzuak gehiegizkoak zirela ebatzita. Gehiegikeria honi aurre egiteko denbora faltak ez du eragotzi grebaren emaitza ona.

Zerbitzu pribatuetan, grebak eragina nabarmena izan du:

Merkatu handien artean Donostialdeko Mercabugattiko jardura ia erabat gelditu da. Herrietako merkataritzan eragina nabarmena izan du grebak eta gutxiago hiriburuetan.

Kale-garbitasunaren arloan, lanuztea oso handia izan da, bereziki Gipuzkoan. **Eraikinen eta lokalen garbitasunari** dagokionez, jarraipena itxurazkoa izan da. **I**

Finantza arloan, berriz, eragina han-hemenka izan du grebak, eta jardueran arazoak eragin ditu.

Bestalde, aipagarriak dira oso eskualdeetan goizean izandako mobilizazioak eta baita hiriburuetako eguerdiko manifestazio ikaragarriak.

Bilbo, 2013ko Maiatzaren 30ean